

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **tokiko gobernu batzarrak, 2023ko abenduaren 21ean**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

7.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Toki Gobernu Batzarren ohiko bilkuretarako 2024ko egutegia onartzea.

Alkate-udalburuaren 2023ko abenduaren 19ko proposamenak honela dio:

Gaia: Toki Gobernu Batzarren ohiko bilkuretarako 2024ko egutegia.

I.- Alkatearen 907. dekretuak, 2023ko ekainaren 26koak, Alkateorde eta Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatu zituen honako hauek:

1. Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
2. Iñigo Ruiz Barron jauna (EH Bildu)
3. Iñaki Olalde Altzelai jauna (EH Bildu)
4. Lierni Altube Moyua andrea (EH Bildu)
5. Anik Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)

II.- Kontuan hartuta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.1 artikulua hau xedatzen duela:

“1. Alkateak eta legezko zinegotzi-kopuruaren herena baino gehiagokoa ez den zinegotzi-kopuru jakin batek osatzen dute tokiko gobernu-batzarra. Alkateak izendatzen eta kentzen ditu askatasunez, eta osoko bilkurari ematen dio horren berri.

2. Tokiko gobernu-batzarrari dagokio:

A) Alkateari bere eskumenak gauzatzen laguntzea.

B) Alkateak edo beste udal-organoren batek eskuordetzen dizkion edo legeek esleitzen dizkion eskumenak.”

III.- Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 52 eta 53 artikuluek honako hau xedatzen dute:

“52. Artikulua:

1. *Gobernu-batzordea honako hauek osatuko dute: alkateak (batzordeburu izango da) eta alkateak askatasunez izendatutako zinegotziak.*

2.- *Alkateak gobernu-batzordeko kide izendatu ditzakeen zinegotzien kopurua ez da izango korporazioko kideen legezko kopuruaren herena baino handiagoa. Zenbaketaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko zinegotzi-kopuru osoa zati hiru eginda ateratzen diren dezimalak.*

3. *Alkateak askatasun osoz ken dezake kargutik Gobernu Batzordeko edozein kide.*

4. *Izendapenak eta kargu-uzteak erregelamendu honen 46. artikulua lehenengo zenbakian ezarritako formalitateekin onartuko dira.*

5. *Alkateak ebazpen bakarra eman dezake Gobernu Batzordeko kide izendatzeko eta erregelamendu honetako 43. artikuluan aipatzen diren eskumenak eskuordetzeko.*

53. artikulua:

1. *Gobernu Batzordearen eskumen propio eta eskuordetezina da alkateari etengabe laguntzea bere eskumenak betetzen. Horretarako, Gobernu Batzordeari alkatearen erabaki guztien berri emango zaio. Informazio hori erabakia hartu aurretik emango da, baldin eta gaiaren garrantziak hala eskatzen badu.*

2. *Era berean, alkateak edo osoko bilkurak 43. eta 51. artikuluetan xedatutakoaren arabera eskuordetzen dizkioten eskumenak baliatuko ditu gobernu-batzordeak, bai eta legeek berariaz esleitzen dizkiotenak ere.*

3. *Alkateak eta Osoko Bilkurak Gobernu Batzordean eskuordetzeak egiteko araubidea erregelamendu honetako 43., 44. eta 51. artikuluetan xedatutakoa izango da.”*

Gainera, 112. Artikuluak, 2. Atalean honakoa xedatzen du:

“Erakundearen erregelamendu organikoan berariazko aurreikuspenik ez badago, Gobernu Batzordeak hamabost egunetik behin egingo du, gutxienez, ohiko bilera.”

Halaber, 113. Artikuluak honakoa ezartzen du

“1. Gobernu-batzordearen bilkurak titulu honen lehenengo kapituluan ezarritakora egokituko dira, honako aldaketa hauekin:

A) Deialdiaren eta bilkuraren artean ezin izango dira hogeita lau ordu baino gutxiago igaro, aparteko eta presazko bilkuren kasuan izan ezik; horietan, gai-zerrendan sartutako gaiak ezagutu aurretik, presazkotzat jo beharko da, kideen gehiengoaren aldeko erabakiz.”

IV. Kontuan hartu behar da aurreko erregelamenduaren **84. Artikulua**:

“Eztabaidarako eta, hala badagokio, bozketarako oinarri gisa erabili behar den gai-zerrendako gai guztien dokumentazioa korporazioko kideen eskura egongo da deialdia egiten den egunetik bertatik korporazioko idazkaritzan.

Horrenbestez, korporazioko edozein kidek aztertu ahal izango du, bai eta hura osatzen duten dokumentu zehatzen kopiak lortu ere, baina originalak ezin izango dira dauden lekutik atera.”

V. 2023ko uztailaren 14ko Alkate Dekretu bidez (1007. Zenbakia, GAO 2023/07/21ean argitaratua), Tokiko gobernu-batzarrari eskuordetzan eman zitzaizkion kontratazioaren arloan alkatetzari dagozkion eskumen hauek, eta gainerakoak beretzat gordetzen zituela:

- 5.000 euroko edo gehiagoko kontratu txikiak onartzea (BEZik gabe) zerbitzu-kontratuetan edo hornidura-kontratuetan, eta 20.000 eurokoak (BEZik gabe) obra-kontratuetan.

- SPKLren 117. artikuluan aipatzen diren kontratazio-espeditenteak onartzeko eskumena.

Nolanahi ere, alkate-udalburuak edozein unetan eta egokituz jotzen duenean eskumen hori bereganatu ahal du.

Gaia azterturik, Tokiko Gobernu Batzordeari 2024ko ohiko bilkuren egutegia hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Onartzea, Tokiko Gobernu Batzordearen 2024rako ohiko bilkuren egutegia, xehetasun hauekin:

Tokiko Gobernu Batzarra egingo da, ohiko izaerarekin, oro har, aste bakoitzeko ostegunetan, 17:00etan, bilkura-aretoan. Hala ere, alkateak, justifikatutako arrazoiak direla-eta, bilkura horren data aldatu ahal izango du edo deialdirik ez egin, Gobernu Batzarri aurkeztu beharreko gairik ez badago.

Bigarrena.- Batzorde informatiboak aurreko egutegia kontuan izanda jarriko dira, kontuan harturik Tokiko Gobernu Batzorderako deialdia gutxienez egun bat baliodun lehenago egin behar dela eta deialdia egiterakoan espeditentea osorik egon behar dutela.

Hirugarrena.- Udal teknikariek deialdia egiten den egunetik gai-zerrendako gai guztien dokumentazioa zinegotzien eskura izan beharko dute.

Gaia aztertuta tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikuluen arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

Alkatearen O.I.

IDAZKARIA

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU8311bd80-b5cf-49f5-bcc4-d998f8385ec0**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>